|---|---|---|---|---|
| | | | E.Podemos) | |
| 23665 | Elkarrekin Podemos | 10 (PP, EH Bildu, E.Podemos) | 14 (PNV, PSE-EE) | |
| 23666 | Elkarrekin Podemos | 10 (PP, EH Bildu, E.Podemos) | 14 (PNV, PSE-EE) | |
| 23667 | Elkarrekin Podemos | 10 (PP, EH Bildu, E.Podemos) | 14 (PNV, PSE-EE) | |
| 23668 | Elkarrekin Podemos | 10 (PP, EH Bildu, E.Podemos) | 14 (PNV, PSE-EE) | |
| 23669 | Elkarrekin Podemos | 10 (PP, EH Bildu, E.Podemos) | 14 (PNV, PSE-EE) | |
| 23671 | Elkarrekin Podemos | 10 (PP, EH Bildu, E.Podemos) | 14 (PNV, PSE-EE) | |
| 23672 | Elkarrekin Podemos | 10 (PP, EH Bildu, E.Podemos) | 14 (PNV, PSE-EE) | |

**PROPOSAMENAREN BOZKETA/VOTACIÓN PROPUESTA**

BAI/SI: 14 (PNV, PSE-EE)
EZ/NO: 10 (PP, EH Bildu, E.Podemos)

12:55ean, alkateak osoko bilkura eten du, bilkura-aretoa aireztatu ahal izateko.

Siendo las 12:55 horas la Alcaldesa suspende el pleno para que se pueda airear el salón de sesiones.

13:15ean ekin zaio berriro bilkurari.

Siendo las 13:15 horas se reanuda la sesión.

## UDAL ORGANOEN KONTROLA

## CONTROL DE LOS ÓRGANOS DE LA CORPORACIÓN

### ANTOLAKUNTZA ETA KONTUAK

### ORGANIZACIÓN Y CUENTAS

**98.- HAINBAT DEKRETUREN BERRI EMATEA: TRANSFERENTZIAK ERABILIZ AURREKONTUAK ALDARAZTEKOAK.**

**98.- DACIÓN DE CUENTA DE DIVERSOS DECRETOS DE MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA MEDIANTE EL USO DE TRANSFERENCIAS.**

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta,

A propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas:

Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2021/07/30 Fecha: 30/07/2021
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2021/07/30 Fecha: 30/07/2021

Jakitun egon transferentzien bidezko aurrekontu-aldaketaren Dekretu hauek jakintzat ematea:

Quedaron enterados de los siguientes decretos de modificación presupuestaria mediante el uso de transferencias:

2607/2021 zenbakidun Dekretua 126.720,00 euroko zenbatekoarekin. 2021/07 kreditu-transferentzia. 2021erako oinarriak eta deialdia , Getxoko udalerriko gizarte-kohesioaren arloan diharduten erakundeentzako diru-laguntzak emteko.

Decreto nº 2607/2021 por un importe de 126.720,00 euros. Transferencia de crédito 2021/07. Bases y convocatoria 2021 para la concesión de subvenciones para entidades que actúen en el ámbito de cohesión social del municipio de Getxo.

2619/2021 zenbakidun Dekretua 18.150,00 euroko zenbatekoarekin. 2021/08 kreditu-transferentzia. Legegintzaldiko Planaren kudeaketa eta jarraipena kontrolatzea. Getxo Ekinez gobernantza-eredua diseinatzea

Decreto nº 2619/2021 por un importe de 18.150,00 euros. Transferencia de crédito 2021/08. Control de gestión y seguimiento del Plan de Legislatura. Diseño del modelo de Gobernanza de Getxo Ekinez.

2836/2021 zenbakidun Dekretua 983,18 euroko zenbatekoarekin. 2021/09 kreditu-transferentzia. Kreditu-transferentzia, 2. kapitulutik 6. kapitulura, Fonestar ASH-1200 sistema autoanplifikatua eta CD/USB/MP-3 CDM 1200 modulua eskuratzeko.

Decreto nº 2836/2021 por un importe de 983,18 euros. Transferencia de crédito 2021/09. Transferencia de crédito Aula de Cultura de capítulo 2 a capítulo 6 para la adquisición de un sistema autoamplificado Fonestar ASH-1200 y módulo CD/USB/MP-3 CDM 1200.

**PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES**
Paula Amieva
Camen Díaz
Ibon Rodríguez

**99.- GETXOKO UDALAREN ETA ERAKUNDE AUTONOMOEN 2020/2023 DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN EGIKARITZEAREN KONTU EMATEA, 2020. URTERARI DAGOKIONA.**

**99.- DACIÓN DE CUENTA DE LA EJECUCIÓN DEL PLAN ESTRATÉGICO DE SUBVENCIONES 2020/2023 DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO Y SUS ORGANISMOS AUTÓNOMOS REFERENTE AL AÑO 2020.**

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta,

A propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas:

1.- Getxoko Udalaren eta erakunde autonomoen 2020/2023 aldirako Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren egikaritzearen jakitun egon,

1.- Quedaron enterados de la ejecución del Plan estratégico de subvenciones 2020/2023 del Ayuntamiento de Getxo y sus organismos autónomos referente

Getxo UDALA · AYUNTAMIENTO
Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2021/07/30 Fecha: 30/07/2021
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2021/07/30 Fecha: 30/07/2021

2020.urteari dagokiona.

2.- Akordio hau Udalaren eta erakunde autonomoen diru-laguntzak kudeatzen dituzten unitateei jakinaraztea.

al año 2020.

2.- Comunicar el presente acuerdo a las unidades gestoras de las subvenciones tanto del Ayuntamiento como de los Organismos Autónomos.

**PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES**
Keltse Eiguren
Ibon Rodríguez

## MOZIOAK ETA INTERPELAZIOAK

### 100.- PP ALDERDIKO UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: ESKOLETAKO PLAZA.

Gehiengoz, honako mozio hau atzera bota da:

Ipotxen plaza bezala ezagunagoa den Eskoletako plaza Getxoko erreferentzia puntuetako bat da, eta are gehiago Areetako auzoarentzat. Plaza hau elkargune modura erabiltzen dute inguruetako gazte eta nagusien gehiengoak.

Argi dago gune gatazkatsua ere badela, udal ordenantzak debekatzen badu ere, badirelako plazan baloiarekin jolasten dutenak. Baloi-jolasek, auzokideei arazoak sortzeaz gain, plazatik igarotzen direnak ere gogaitzen ditu.

Eta horri lotuta galdetu behar diogu geure buruari: Zergatik da elkargune bat gatazka-gune aldi berean? Agerikoa da konponbidea behar duen arazoa dela hau.

Horregatik arreta gehiago jarri behar diogu eta auzokide eta oinezkoentzako gogaikarriak diren galazotako ekintzak saihestuko dituen plaza onuragarriago bat sortu.

Ikusten dugu zabuen kokapena ez dela

## MOCIONES E INTERPELACIONES

### 100.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/LA PLAZA DE LAS ESCUELAS.

Por mayoría se rechaza la siguiente moción:

Uno de los puntos de referencia de Getxo y más concretamente del barrio de Las Arenas es la Plaza de las Escuelas, también conocida como Plaza de los Enanos. Es en esta plaza donde se dan cita el mayor número de niños de este núcleo getxotarra así como de mayores.

También es evidente que se trata de un punto conflictivo dado que hay personas que juegan al balón, algo prohibido por la ordenanza municipal y que causa problemas no sólo a los vecinos sino también a las personas que pasan por esa plaza.

Y es aquí donde cabe preguntarse: ¿Por qué un punto de encuentro es también a su vez un punto de conflicto? Está claro que se trata de un problema al que debemos hacer frente y buscar solución.
Es por ello por lo que debemos prestarle más atención y crear una plaza más saludable y que evite actividades prohibidas y molestas para residentes y viandantes.

Observamos que la ubicación de los

egokiena, ostalaritzara zuzendutako lokal baten terrazaren alboan daudelako. Terraza horretan erre eta edan egiten da eta, hortaz, sortzen den giroa ez da umeentzako giro egokiena.

columpios no es la más adecuada ya que están junto a la terraza de un establecimiento de restauración, terraza en la que se practica el hábito de fumar y beber de forma habitual, creando así un ambiente poco aconsejable para los niños.

Arrazoi hauengatik, zabuak gaur egun kokatuta dauden aldearen kontrako aldean kokatzea proposatzen dugu. Modu honetan umeek modu seguruago batean jolastea lortzeaz gain, osasunarentzat onuragarria ez den baina imitatzen oso erraza den mendekotasun batetik urrun mantentzea lortzen dugu.

Por estos motivos, proponemos que la zona de columpios se coloque en el lado opuesto al ocupado hoy en día. De esta forma conseguimos que los niños además de poder jugar más seguros, no estén contemplando un hábito nada saludable pero fácilmente imitable.

Zabuak lekuz aldatuz, tabernako mahai eta itzalkinak aire zabalean kokatzeko tokia geratzen da, mahai eta itzalkin horiek arkupean mantendu behar izan gabe. Modu honetan nagusientzako sozializaziorako gune bat sortzen dugu.

Al cambiar de lugar la zona de columpios, queda espacio para colocar las mesas y sombrillas del citado establecimiento de restauración al aire libre y no bajo unos arcos. De esta forma estamos creando una zona de socialización de mayores.

Ezin dugu albo batera utzi plaza horretan loreontzi batzuk jartzea komenigarria izan daitekeela, berdegune txikiak sortzeko.

Tampoco podemos obviar que en dicha plaza sería conveniente la colocación de maceteros para crear pequeños espacios verdes.

Garai batean arkuek estalitako guneari ematen zitzaion erabilera ez ahazteko, eserleku txikiak kokatu daitezke, nahi dutenek egun euritsuetan ere elkartu daitezen.

Para no olvidar el antiguo uso que se dio en su origen a la zona cubierta por los arcos, se colocarían pequeños bancos para que todo aquel que quiera pueda reunirse incluso los días de lluvia.

Azaldutako guztiagatik, Popular Udal Taldeak honako hau aurkezten du:

Por todo esto, el Grupo Municipal Popular presenta la siguiente

ERABAKI PROPOSAMENA:

PROPUESTA DE ACUERDO:

Lehenengoa: Aurretiaz aipatutako gunera lekualdatzea Eskoletako plazako zabuak.

Primero: El cambio de lugar de los columpios de la plaza de las Escuelas al lugar indicado anteriormente.

Bigarrena: Loreontzien kokapenaren bitartez berdegune txikiak sortzea.

Segundo: Creación de pequeñas zonas verdes mediante la colocación de maceteros.



Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2021/07/30 Fecha: 30/07/2021
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2021/07/30 Fecha: 30/07/2021

Hirugarrena: Arkuek estalitako gunean eserlekuak kokatzea.

Tercero: Instalación de bancos en zona cubierta por los arcos.

Laugarrena: mozio honen berri ematea udalaren hedabideetan.

Cuarto: que se informe de la presente moción en los medios de comunicación municipales.

**PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES**

Alicia González del Valle
Paula Amieva
Gonzalo Ayo
Mikel Bildosola
Carlos Sergio

**BOZKETA/VOTACIÓN**

BAI/SI: 5 (PP)
EZ/NO: 17 (PNV, EH Bildu, PSE-EE)
ABSTENTZIOA/ABSTENCIÓN: 2 (E.Podemos)

**101.- PP ALDERDIKO UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: ENPLEGU PUBLIKORAKO EUSKARAREN GEHIEGIZKO EZAGUTZA ESKARIA.**

**101.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/LAS EXCESIVAS EXIGENCIAS DEL CONOCIMIENTO DEL EUSKERA PARA EL ACCESO AL EMPLEO PÚBLICO.**

Gehiengoz, honako mozio hau atzera bota da:

Por mayoría se rechaza la siguiente moción:

Erakunde publikoek egindako inkesta soziolinguistiko gehienak ondorio berera heltzen dira: azken urteetan herritar gehiagok daki euskara, horien portzentaia ikaragarria izatera iristen ez bada ere, baina euskararen erabilerak behera egin du gure autonomia-erkidegoan.

La inmensa mayoría de las encuestas sociolingüísticas realizadas por las instituciones públicas llegan a la misma conclusión: en los últimos años a pesar de que más ciudadanos saben euskera, sin ser este porcentaje precisamente espectacular, el uso del mismo en nuestra Comunidad Autónoma se ha reducido.

Euskararen benetako erabilera aintzat hartuta, hizkuntzaren gaineko jakintza inposatutako elementu diskriminatzaile bat bilakatu da erakunde publiko askotan enplegu publikora iriste aldera. Getxoko Udalean hau gertatzen da.

Teniendo en cuenta el uso real del euskera, el requisito de su conocimiento se convierte en un elemento de imposición y discriminatorio a la hora de acceder a un empleo público en muchas instituciones públicas. Esto sucede en el Ayuntamiento de Getxo.

Alderdi Popularreko Udal Taldean uste dugu lekuz kanpo dagoela euskara

Desde el Grupo Municipal Popular entendemos fuera de toda lógica que el



Getxo UDALA · AYUNTAMIENTO
Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2021/07/30 Fecha: 30/07/2021
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2021/07/30 Fecha: 30/07/2021

Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2021/07/30 Fecha: 30/07/2021
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2021/07/30 Fecha: 30/07/2021

titulu akademikoak, esperientzia edo kualifikazio pertsonala bezalako beste meritu batzuk baino gehiago baloratzea.

euskera se valore en mayor cuantía que otros méritos como pueden ser la titulación académica, la experiencia o la cualificación profesional.

Bestalde, hizkuntza-eskakizunaren inposaketaren bidez, funtzionario eta udal-langile askori barne-igoerarako edo karrera profesionalean maila ezberdinetako hobekuntzetarako atea ixten zaie.

Por otra parte, se impide a numerosos funcionarios y trabajadores municipales la posibilidad de promoción interna y el acceso a mejoras en el escalafón dentro de su carrera profesional con la imposición del perfil lingüístico.

Hau guztia aintzat hartuta, egokiagoa da Getxoko enplegu publiko bat lortzeko beharrezkoa den euskararen ezagutza maila udalerriko errealitate soziolinguistikoarekin bat etortzea.

Con estas consideraciones es mucho más apropiado que el requisito del conocimiento del euskera para acceder a un empleo público en Getxo tenga que estar adaptado a la realidad sociolingüística del municipio.

Azaldutako guztiagatik, Alderdi Popularreko Udal Taldeak honako hau aurkezten du:

Por todo esto, el Grupo Municipal Popular presenta la siguiente

ERABAKI PROPOSAMENA

PROPUESTA DE ACUERDO:

Lehenengoa: Getxoko Udalak enplegu publikorako beharrezkoa den euskararen ezagutza maila jaitsi dezala, udalerriko errealitate soziolinguistikoarekin bat etor dadin.

Primero: Que el Ayuntamiento de Getxo rebaje las exigencias del conocimiento del euskera para el acceso al empleo público y sea acorde a la realidad sociolingüística del municipio.

Bigarrena: Mozio honen berri ematea udalaren hedabideetan.

Segundo: Que se informe de la presente moción en los medios de comunicación municipales.

**PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES**
Gonzalo Zorrilla-Lequerica
Paula Amieva
Gonzalo Ayo
Nerea Guijarrubia
Irantzu Uriarte

**BOZKETA/VOTACIÓN**
BAI/SI: 5 (PP)
EZ/NO: 19 (PNV, EH Bildu, PSE-EE, E.Podemos)

**102.- PP ALDERDIKO UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: TXAKURRENTZAKO**

**102.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/ PLAYA PARA PERROS.**

Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2021/07/30 Fecha: 30/07/2021
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2021/07/30 Fecha: 30/07/2021

**HONDARTZA.**

Gehiengoz, honako mozio hau atzera bota da:

Gure udalerria etxe-animalien oso zalea da orokorrean, eta bereziki txakurrena.

Gure herriko familia ugarik gozatzen dute beraien etxeetan txakurren konpainiaz eta, hala ere, gaur-gaurkoz, gure Udalak ez die modu eraginkorrean erantzunik eman etxe-animaliekin bide publikoan gozatzeko beharrizanei.

Gaur egun gure txakurrak (arriskutsuak salbuetsita) solte ibili daitezkeen sei gune baino ez dira existitzen. Txurrukako kaia, Areetako hondartza, Portu Zaharreko zelaigunea, Ereagako hondartza eta Arrigunagako hondartza. Gobela ibaiari paralelo doan bidea eta Galearako bidea 18:00ak eta 11:00ak bitartean.

Gure helburua txakurrentzako aisialdirako guneak zabaltzea eta ordutegiak malgutzea da. Horrez gain, hau guztia txakurrik ez duten eta gune hauetaz gozatu nahi duten gainontzeko herritarren aisiarekin bateragarri izatea nahi dugu.

Gure udalerrian Bola hondartza izenarekin ezagutzen dugun gunean itsasbeherarekin batera hondartza txiki bat sortzen da. Berau nahikoa izan daiteke gure txakurrek hondartzaz eta itsasoaz goza dezaten.

Horrela, gure txakurrek gozatzeko "hondartza" bat duen Euskadiko lehen udalerria izango ginateke eta, aldi berean, familiak eta txakurrak gune berean elkarrekin bizi daitezkeela erakutsi ahalko zen.

Azaldutako guztiagatik, Alderdi

Por mayoría se rechaza la siguiente moción:

Nuestro municipio es sin duda alguna un municipio muy amante de las mascotas y en particular de los perros.

Numerosas familias de nuestro pueblo disfrutan en sus hogares de la compañía de perros, sin embargo nuestro Ayuntamiento no ha respondido de forma eficiente, a día de hoy, al disfrute en las vías públicas de nuestras mascotas.

En la actualidad solo existe cinco zonas en las que nuestros perros pueden estar sueltos (excluidos los peligrosos). Muelle de Churruca, y Playa de Las Arenas, relleno del Puerto Viejo y Playa de Ereaga y Playa de Arrigunaga. Paseo paralelo al Río Gobela y camino de la Galea en horario de 18.00 a 11.00 horas.

Nuestra intención es ampliar las zonas de esparcimiento de nuestros perros así como los horarios pero también poder compaginarlo con el derecho de los demás vecinos del municipio que no poseen perros y quieren disfrutar de las zonas de esparcimiento.

En nuestro municipio disponemos de un pequeño espacio en la denominada Playa de la Bola, en la que en Bajamar surge un pequeño arenal que entendemos puede ser suficiente para que nuestros perros puedan disfrutar de la playa y del mar.

Nos convertiríamos de este modo en el primer municipio del País Vasco con una “playa” donde nuestros perros podrían disfrutar y se demostraría que perros y familias pueden convivir en un espacio natural.

Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2021/07/30 Fecha: 30/07/2021
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2021/07/30 Fecha: 30/07/2021

Popularreko Udal Taldeak honako hau aurkezten du:

ERABAKI PROPOSAMENA

LEHENENGOA: Udaleko Osoko Bilkurak Bola hondartza eguneko 24 orduetan txakurrentzako aisialdi gune bezala erabiltzeko baimena eskatzen dio Udalari.

BIGARRENA: Mozio honen berri ematea udalaren hedabideetan.

Por todo esto, el Grupo Municipal Popular presenta la siguiente

PROPUESTA DE ACUERDO

PRIMERO: El pleno del ayunta insta al Ayuntamiento a autorizar el uso de la Playa de la Bola como zona de esparcimiento para perros las 24 horas del día

SEGUNDO: Que se informe de la presente moción en los medios de comunicación municipales.

**PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES**
Eduardo Andrade
Carolina Uribe
Carmen Díaz
Mikel Bildosola
Joseba Arregui

**BOZKETA/VOTACIÓN**
BAI/SI: 7 (PP, E.Podemos)
EZ/NO: 14 (PNV, PSE-EE)
ABSTENTZIOA/ABSTENCIÓN: 3 (EH Bildu)

**103.- PP ALDERDIKO UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: SEGURTASUN-ARMAIRUAK HONDARTZAN.**

Gehiengoz, honako mozio hau onartu da:

Badator uda eta, pandemiaren ondorioz bizi izan dugun urte gogorraren ostean, herritarrek aire librea, eguzkia eta hondartza nahi dituzte irrikaz.
Hemen, Getxon, gure herritarrez gain, beste udalerri batzuetako bisitariak erakartzen dituzten bost hondartza ezin hobe ditugu, eta beharrezkoa da horiek prest eta baldintza onenetan edukitzea.

Duela 5 urte baino gehiagotik egiteke dagoen gauzetariko bat da erabiltzaileek bainua hartu bitartean beraien gauzak gordetzeko segurtasun armairuen kokapena.

**103.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/ TAQUILLAS DE SEGURIDAD EN LA PLAYA.**

Por mayoría se aprueba la siguiente moción:

Se acerca el verano y después de un año tan duro de pandemia, los ciudadanos tienen ansias de aire libre, sol y playa.
Aquí en Getxo, que contamos con cinco magníficas playas que atraen a muchos bañistas incluidos los de otros municipios, necesitamos tenerlas a punto y las mejores condiciones.

Una mejora que está pendiente desde hace más de 5 años, es la colocación de taquillas de seguridad donde depositar los objetos de los usuarios mientras se bañan.

Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2021/07/30 Fecha: 30/07/2021
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2021/07/30 Fecha: 30/07/2021

5 urte dira talde honek armairuak kokatzeko aurkeztutako mozioa onartu zela. Mozio hau onartu bai baina unean bertan ahaztu zen, beste askoren antzera. Badakigu armairuak kokatzeko beranduegi dela, proposamen honek ez diola herritarrek egindako eskari bati erantzuten edo mota honetako zerbitzuak Espainiako gainontzeko hondartzetan ez daudela oso hedatuta esango digutela. Baina, modu berean, Zugatzarte etorbideko bidegorria egiteko eskaririk ere ez dago, eta egingo da, nahiz eta bertako bizilagunak eta herritarrak aurka egon. Mota honetako zerbitzuen hedapen eza ez da ezertarako oinarria, Getxo ekimen honetan aitzindari izan daitekeelako aurretiaz jokatuz.

Hace 5 años se aprobó una moción, presentada por este grupo municipal donde se instaba a colocar dichas taquillas, pero como tantas otras, igual que aprobada fue olvidada. Por supuesto nos dirán que es demasiado tarde para colocarlas o que no es una demanda de la ciudadanía o que no es un servicio muy extendido en otras playas del resto de España, a lo que contestamos que tampoco hay una demanda para construir el bidegorri de Avda de Zugazarte y se va a realizar, teniendo en contra a los vecinos de la zona y del municipio y que no sea un servicio muy extendido tampoco se sustenta porque Getxo es un municipio que se puede adelantar a los tiempos y ser pionero con esta iniciativa.

Gainera, armairuak kokatzearen beste abantailetako bat da hondartzetaranzko trafikoak behera egingo lukeela, jende asko autoz joaten baita bertan bere gauzak gorde ahal izateko. Horrez gain, armairuak mota eta prezio ugaritakoak izan daitezke.

Además otra de las ventajas de colocar taquillas, de las que hay infinidad de modelos y precios, es que disminuiría el tráfico hacia las playas, pues mucha gente llega en sus vehículos para guardar sus cosas, algo que si tuvieran taquillas se evitaría.

Uda heltzeko geratzen den denborari dagokionez, ekimen hau ahaztetik atera eta martxan jartzeko 5 urte izan direla gogorarazi behar dut.

En cuanto a la falta de tiempo por la proximidad del verano, recordaría que han tenido 5 años para sacarla del olvido y ponerlo en marcha

Horregatik guztiagatik, Alderdi Popularreko udal-taldeak honako erabaki-proposamen hau aurkezten du:

Por todo ello, el Grupo Municipal Popular presenta la siguiente

ERABAKI PROPOSAMENA:

PROPUESTA DE ACUERDO:

Lehenengoa: Getxoko Udalak udalerriko hondartza guztietarako armairuak erosteko espedientea hastea.

Primero: El ayuntamiento de Getxo inicie el expediente para la contratación de taquillas para todas las playas del municipio

Bigarrena: Mozio honen berri ematea udalaren hedabideetan.

Segundo: Que se informe de la presente moción en los medios de comunicación municipales.

Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2021/07/30 Fecha: 30/07/2021
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2021/07/30 Fecha: 30/07/2021

**PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES**

Natalia Aranduy
Paula Amieva
Gonzalo Ayo
Nerea Guijarrubia
Joseba Arregui

**BOZKETA/VOTACIÓN**

BAI/SI: 7 (PP, E.Podemos)
EZ/NO: 3 (EH Bildu)
ABSTENTZIOA/ABSTENCIÓN: 14 (PNV, PSE-EE)

Eduardo Andrade bilkura aretorik atera da.

Eduardo Andrade se ausenta de la sesión.

**104.- GETXO-EH BILDU ALDERDIKO UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: PLASTIKOAREN ERABILERA MURRIZTEA.**

Gehiengoz, honako mozio hau onartu da:

Plastikoa gehiegi erabiltzen dugula aipatu behar dugu berriro. Bi edo hiru belaunalditan gure planeta plastikoz josi dugu, horrela itsasoetan dagoen hondakinen %80a plastikoa da. Plastikoa ekoizteko kostua oso baxua denez, plastikoa gure bizitzetan gailendu egiten da. Aldaketa klimatikoarekin batera, plastikoaren erabilera gutxitzea da ingurumena babesteko borroka nagusienetako bat.

Arazo larri honi irtenbideak topatzea ezinbesteko bilakatu da. Irtenbide orokorrak bilatzea garrantzitsua den arren, lokalagoak diren erantzunak bilatzea ere oso garrantzitsua da, neurri zehatz eta errazez.

Epe luzera dagoen irtenbide bakarra hondakin plastikoak murriztea da, gehiago birziklatuz eta berrerabiliz. 2019an zehar, getxoztarrok gutxi

**104.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL EH BILDU S/REDUCCIÓN DEL USO DE PLÁSTICO.**

Por mayoría se aprueba la siguiente moción:

Tenemos que reiterar que utilizamos demasiado plástico. Durante dos o tres generaciones, hemos cubierto el mundo de plástico, hasta el punto de que el plástico supone 80% de los residuos del mar. El plástico domina nuestras vidas debido al barato coste de su producción. Junto al cambio climático, la reducción de la utilización del plástico es uno de los frentes más importantes de la lucha por la protección del medio ambiente.

Buscar remedio a este grave problema se ha convertido en algo imprescindible. Aunque es importante buscar soluciones a nivel global, también es importante tomar medidas precisas y fáciles para llevar a cabo desde un ámbito más local.

La única solución a largo plazo pasa por reducir la utilización de plástico mediante el reciclaje y la reutilización. Durante el 2019 los getxotarras creamos

gorabehera 1.715 tona hondakin plastiko sortu genituen. Beraz, gure herrian dugun erantzukizuna argia da. Ondorioz, bistan dago Europako Batzordeak ezarritako estrategiak eta helburuak gureak egin behar ditugula, gai plastiko kutsagarrienen erabilera murriztu nahi baitu ekonomia zirkularraren estrategia baten garapenaren barruan.

entorno a 1.715 toneladas de residuos de plástico. Por lo tanto, nuestra responsabilidad como pueblo es clara. Es evidente que debemos integrar las estrategias y los objetivos impuestos por la Comisión Europea en relación a la reducción de la utilización de plásticos contaminantes mediante el desarrollo de una estrategia de economía circular.

Horregatik guztiagatik, honako akordio-proposamena egiten diogu Getxoko osoko bilkurari:

Por todo ello, presentamos al pleno del Ayuntamiento de Getxo la siguiente propuesta de acuerdo:

1.- Getxoko Udalak plastikoaren erabileraren azterketa egingo du eta handik ateratako ondorioetatik plastikoa murrizteko barne plangintza bat egingo du, udal eraikinetan praktikan jartzeko.

1.- El Ayuntamiento de Getxo realizará un estudio en torno a la utilización del plástico, con el objetivo de elaborar una planificación interna para poner en práctica en los edificios municipales.

2.- Udalak egindako plangintzarekin bat egiten duten merkatarientzako laguntzak emango dizkie, kontsumo arduratsua sustatzeagatik.

2.- Se proporcionará ayuda a los comerciantes que impulsen el consumo responsable uniéndose a la planificación elaborada por el Ayuntamiento.

3.- Getxoko udalak urtero plastikoaren erabilera murrizteko sentsibilizazio-kanpainak egingo ditu.

3.- El Ayuntamiento de Getxo realizará de forma anual campañas de sensibilización para la reducción de la utilización del plástico.

**PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES**
Mikel Bildosola
Carolina Uribe
Carmen Díaz
Alicia González del Valle
Joseba Arregui

**BOZKETA/VOTACIÓN**
BAI/SI: 6 (EH Bildu, E.Podemos)
ABSTENTZIOA/ABSTENCIÓN: 17 (PNV, PP, PSE-EE)

Eduardo Andrade bilkurara itzuli da berriz.

Eduardo Andrade se incoropora a la sesión.

**105.- GETXO-EH BILDU ALDERDIKO UDAL TALDEAK**

**105.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL EH BILDU S/PERMITIR**



Getxo UDALA - AYUNTAMIENTO
Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2021/07/30 Fecha: 30/07/2021
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2021/07/30 Fecha: 30/07/2021

Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2021/07/30 Fecha: 30/07/2021
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2021/07/30 Fecha: 30/07/2021

**AURKEZTUTAKO MOZIOA: GETXOKO BASERRIAK BABESTU ETA KONPONKETAK EGITEA AHALBIDETZEA.**

Gehiengoz, honako mozio hau atzera bota da:

Oposiziotik hainbatetan salatu dugun bezala, Getxoko Hirigintza Antolamendurako Plangintza Orokorraren berriskupena atzerapen kezkagarriarekin gauzatzen ari da. Hamar urte baino gehiago igaro dira HAPO berriaren oinarriak jarri behar genituenetik, eta oraindik zaharkituta dauden planeamendu urbanistiko batzuk pairatu behar izaten ditugu.

Atzerapen horrek kalte handiak sortu ditu Getxoko auzokide guztiengan: gaur egungo gizartea ez da aurreko HAPO egin zeneko gizarte berbera, ez ditugu beharrizan berdinak, errealitate ekonomiko eta soziala ez da berbera eta, beraz, HAPO hori ez dago egokituta Getxok bizi duen egoerara. Azken urteetan Udalak behin-behineko aldaketak egin ditu planeamendu urbanistikoetan, hainbat sektore bultzatu ahal izateko eta orokorrean eraikuntza masiboarekin jarraitu ahal izateko, HAPO berriaren erredakzioari lehentasuna eman beharrean. Atzerapenak Getxoko etorkizuna, eta etorkizuneko hirigintza kolokan jartzen ditu.

Bada, atzerapen horrek ere bestelako albo-kalteak izan ditu beste auzokide batzuengan: Getxoko Andra Mari inguruan babestutako baserriak dituzten hainbat auzokidek ezin izan dituzte euren etxebizitzetan konponketarik egin, aurreko planeamendu urbanistikoek zehazten dituzten arauak direla eta. Esan gabe doa baserriak gure herriko ondarearen altxor nagusietakoak direla, eta erabat

**PROTEGER Y REALIZAR ARREGLOS EN CASERÍOS DE GETXO**

Por mayoría se rechaza la siguiente moción:

Tal y como hemos denunciado en más de una ocasión desde la oposición la revisión del Plan General de Ordenación Urbana de Getxo se está realizando con un retraso considerable. Han transcurrido más de diez años desde que fijamos las nuevas bases del PGOU, y aún debemos seguir padeciendo planeamientos urbanísticos que se encuentran obsoletos.

Dicho retraso provoca grandes perjuicios a toda la ciudadanía de Getxo: la sociedad de hoy en día no es la misma de la de cuando se realizó el anterior PGOU, ya que no tenemos las mismas necesidades y la realidad económica y social no es la misma. Por ello, dicho PGOU no se adecua a la situación que vive Getxo. Durante los últimos años, en lugar de otorgar prioridad a la redacción del nuevo PGOU, el Ayuntamiento a realizado cambios provisionales en el planeamiento urbanístico, en aras a impulsar varios sectores y, en general, con el objetivo de poder seguir con la construcción masiva. El retraso pone en peligro el futuro de Getxo y el urbanismo del futuro.

Dicho retraso también ha traído daños colaterales para otros y otras vecinas: Varias personas que tienen caseríos protegidos en Andra Mari no han podido realizar reparaciones en sus viviendas, a causa de las normas concretadas por los anteriores planeamientos urbanísticos. No hace falta explicar que los caseríos son uno de los tesoros de nuestro patrimonio municipal, y que es del todo necesario

Getxo UDALA • AYUNTAMIENTO
Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2021/07/30 Fecha: 30/07/2021
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2021/07/30 Fecha: 30/07/2021

beharrezkoa dela eurak babestea eta zaintzea, euren nortasuna mantenduz. Gure herriko historiaren lekuko biziak dira, balore historiko, kulturak eta sinboliko handia dute baina, zoritxarrez, Getxon gero eta gutxiago geratzen zaizkigu, eraikuntza masibo eta espekulazioaren ondorioz.

protegerlos y cuidarlos conservando su identidad. Son vivos testigos de la historia de nuestro pueblo. Poseen gran valor histórico, cultural y simbólico pero, por desgracia, en Getxo quedan cada vez menos, fruto de la construcción masiva y la especulación.

HAPOaren atzerapen honek, beraz, hainbat traba sortu dizkie Andra Mari inguruko herritarrei: urteetan bertan bizitzen egon direnak, herentzia jaso dutenak, konponketa lanak egin nahi dituztenak... Horrek arrisku bizian jartzen ditu eraikin hauek eta euren bizigarritasuna. HAPOaren atzerapenak jarraitzen duen bitartean, auzokide hauek konponbideak behar dituzte, ezin dute Udalak dituen erritmo geldoaren menpe jarraitu. Euren etxebizitza eta denon ondarea diren baserriak daude arriskuan, eta, beraz, beharrezkoa da behin-behineko konponbide bat bilatzea eta moldaketa bat egitea: ez espekulazioa bultzatzen jarraitzeko, baizik eta kontrakoa, baserri hauek babestu eta zaintzeko.

Este retraso del PGOU, por lo tanto, tiene varios inconvenientes para la gente que vive en el entorno de Andra Mari: gente que lleva años viviendo allí, gente que ha recibido herencia, gente que quiere realizar trabajos de reparación... Ello pone en grave riesgo dichos edificios y su habitabilidad. Mientras prosiga el retraso del PGOU, estos vecinos y vecinas necesitan soluciones, ya que no pueden continuar dependiendo del lento ritmo del Ayuntamiento. Son sus casas y el patrimonio de todos y todas lo que está en peligro. Por ello, es necesario buscar ya una solución provisional y realizar una adecuación que no sea para continuar impulsando la especulación, sino todo lo contrario, para proteger y cuidar los caseríos.

Kontuan izan behar dugu egungo eta aurreko mendeetako bizi baldintzak, bizigaitasun eta irisgarritasun arauak edo bizi ohiturak ez direla berdinak, eta gaurkotze lanek eta egokitzapenek aldaketa batzuk dakartzatela (antzinako erabilera jadanik ez duten kortak edo ganbarak egokitzea eta eraikinen bizigaitasuna hobetzea, adibidez). Halako lan batzuek, ordea, ez dute nahikoa babes egun dagoen araubidean, zeinak asko zailtzen duen edozein aldaketa, hobekuntza bada ere.

Conviene tener en cuenta que las condiciones de vida, las normas de habitabilidad y accesibilidad o los hábitos de vida actuales y los de los siglos pasados no son iguales y que las obras de actualización y adecuación suponen cambios (por ejemplo, adecuar las cuadras y buhardillas a los cuales ya no se les da el uso que anteriormente se les daba, mejorar la habitabilidad de los edificios). Sin embargo, algunas de esas obras no están debidamente protegidas por la normativa vigente, lo cual dificulta cualquier cambio, aunque sea una mejora.

Gainera, auzokideek euren baserriak eraberritzeko hamaika traba dituzten bitartean, herriko ondarea osatzen duten beste eraikin batzuetan eragin

Además, mientras que la gente del barrio tiene mil dificultades para renovar sus caseríos, el Ayuntamiento otorga permiso para realizar obras de

Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2021/07/30 Fecha: 30/07/2021
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2021/07/30 Fecha: 30/07/2021

handiko lanak egiteko baimena ematen du Udalak, adibidez, Arriluze jauregian luxuzko hotela egiteko proiektua. Ez da zilegi monumentu kategoria duen jauregi batean halako lanei erraztasunak ematea, eta gero Andra Marin baserri batean oinarrizko bizi-baldintzak bermatzeko lanak ez onartzea.

Honegatik guztiagatik, honako akordio-proposamena egiten diogu Getxoko osoko bilkurari:

1. HAPO onartu bitartean eta gehien jota hiru hilabeteko epemugan Getxoko Udalak behin-behineko prozedura antolatuko du Andra Mari inguruko baserri eta orube jabeen hirigintza beharrak, baserriak konpontzeko edo egokitzeko beharrak eta bestelako behar batzuk asetzeko erraztasunak jarriz. HAPOaren atzerapenak ezin baitizkie herritarrei kalteak ezarri. Prozedura hori arautzerakoa kaltetu eta afektatuen iritzia aintzat hartuko da.

2. Getxoko Udalak aldaketak egingo ditu indarrean dagoen HAPOan, Getxoko baserrietan bizigaitasuna hobetzea dakartzaten aldaketak egiteko aukera baimena emango du, dagokion arloaren txosten teknikoan arrazoituz, eta baserri horrek duen babes-kategoria kontuan hartuz.

3. Gure ondare diren baserriak bizigaitasun baldintzetara egokitzeko zein beharrezko segurtasun, osasun, begirune eta apaindura publikoko baldintza onetan egon daitezen, Udalak finantziazio-erraztasunak edo laguntzak ematea, beti ere Udalaren eskumenen barruan, legeak ezarritako mugetan eta onuradunaren ahalmen

